

PASAIA MUSIKAL 2021

MEMORIAREN EDUKIA

1. Antolakuntza eta jarduera.....	2
2. Zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa, hitzarmenak eta beste lankidetzak mota batzuk.....	3
3. Kontuak aurkezteko oinarriak.....	3
4. Onarpen eta balorazio arauak.....	3
5. Ibilgetu materiala.....	5
6. Lurzoruaren ondare publikoa.....	5
7. Higiezinetakako inbertsioak.....	5
8. Ibilgetu ukiezina.....	5
9. Errentamendu finantzarioak eta antzeko eragiketak.....	5
10. Aktibo finantzarioak.....	5
11. Pasibo finantzarioak.....	6
12. Kontabilitate estaldurak.....	8
13. Beste entitate batzuetarako eraikitako edo eskuratutako aktiboak, eta beste izakin batzuk.....	8
14. Atzerriko moneta.....	8
15. Transferentziak, diru laguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk.....	8
16. Hornidurak eta kontingentziak.....	8
17. Ingurumenari buruzko informazioa.....	8
18. Salgai dauden aktiboak.....	8
19. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren aurkezpena jardueren arabera.....	9
20. Aurrekontuzkoak ez diren diruzaintzako eragiketak.....	9
21. Administrazio kontratuak. Esleipen prozedurak.....	10
22. Gordailuan jasotako baloreak.....	10
23. Aurrekontu informazioa.....	10
24. Itxiera ondorengo gertaerak.....	14

1. Antolakuntza eta jarduera

Pasaia udalerrak 15.867 biztanle ditu, 2021eko urtarrilaren 1ean udal erroldan zeuden datuen arabera; 11,34 kilometro karratuko azalera du. Horrenbestez, populazio dentsitatea 1.399,21 biztanle/km² da.

Pasaia Musikal Pasaia Udalaren mendeko fundazioa da eta 7/1985 Legea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena eta Toki entitateen Zerbitzuen erregelamenduaren araudiari jarraituz sortu zen.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak aurrekontu, kontabilitate eta kontrol esparru bat ezartzen du Gipuzkoako lurralde historikoko toki administrazioetarako, haien jarduera ekonomikoa arina eta efizientea izan dadin. Horretarako, irizpide bateratuen aplikazioa errazten zaie aurrekontu prozeduraren eta kontabilitate publikoaren alorretan.

Foru arau horrek hirugarren xedapen gehigarrian Foru Aldundia baimentzen du bertan jasotako xedapenak garatu ditzan. Hori horrela, Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako toki entitateen kontabilitate esparrua onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua onartu zuen, Ogasuneko eta Finantzetako diputatuak proposatuta.

Foru dekretu hori aplikagarria izanik, entitatea hartan jasotakoa aplikatzen aritu da 2016ko ekitalditik aurrera.

Pasaia Musikal Pasaia Udalaren mendeko fundazioa da eta Pasaia udalerrian kokatuta dago Donostia-San Sebastián eremu funtzionalaren baitan eta Oarsoalde eskualdearen barruan.

Pasaia Musikal fundazioak zerbitzu guztiak zuzenean ematen ditu, nahiz eta zerbitzua emateko kontratazio bat ere baduen. Kontratu hori salatua dago amaituta dagoelako, eta une honetan lizitazio bat egiteko prozedura abiatzen dago udala.

Entitatearen diru iturri nagusiak dira:

Sarrera arruntak:

- Tasak eta bestelako diru sarrerak (3. kapitulua): % 29,95
- Transferentzia arruntak (4. kapitulua): % 70,05

Sarrera arruntak % 100 gastu arrunt ez-finantzarioak ordaintzeko erabili dira; beraz, ekitaldiko diru-sarrerak parekatuak izan dira, nahiz eta oreka hori lortzeko udal ekarpen osoa erabili den.

Entitatearen kudeaketari eragiten dioten alderdi fiskalei dagokienez, jasandako BEZa ez-kengarritzat hartzen da.

Entitatea sozietateen gaineko zergatik salbuetsizat hartzen da, hala jasotzen baitu 12. artikulua a) letran Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 17ko 2/2014 Foru Arauak.

Fundazioak zuzendaritza bat du eta lehendakaria da arduraduna.

Entitatearen plantilla honela osatuta dago: funtzionarioak (bitartekoak eta karrerakoak).

Likidatutako ekitaldian kontratatutako langileen batez besteko kopurua eta urte bereko abenduaren 31n lanean aritu diren langileak honako hauek dira, kategoriaren eta sexuen arabera:

	2021 Bataz bestekoa		2021 (2021/12/31)	
	<i>Gizonak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Gizonak</i>	<i>Emakumeak</i>
Funtzionarioak	3	3	3	3
GUZTIRA	3	3	3	3

2. Zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa, hitzarmenak eta beste lankidetzak mota batzuk.

Entitateak ez ditu zerbitzuak zeharkako kudeaketaren bidez edota hitzarmenen bidez ematen, kudeaketa zuzena egiten du.

3. Kontuak aurkezteko oinarriak.

Urteko kontuak entitatearen kontabilitate erregistroetatik abiatuta prestatu dira, eta indarrean dagoen legeriari eta Toki Administrazioa egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuak jasotako arauari jarraituz aurkezten dira. Izan ere, aurkeztu nahi da entitatearen ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen irudi leiala, bai eta eskudiruaren fluxuen egoeran sartutako fluxuen benetakotasunarena ere.

4. Onarpen eta balorazio arauak.

1 Ibilgetu materiala:

Hasieran, ibilgetu materiala eskurapen prezioaren edo produkzio kostuaren arabera baloratuta dago. Ondoren, amortizazio metatua eta, halakorik egonez gero, narriaduragatiko galerak gutxitzen dira.

Ibilgetu materialaren elementuak kostuaren balioen gainean amortizatzen dira, kalkulatu zaizkien bizitza baliagarriko aldietan metodo linealari jarraituta. Aurreko ekitaldietan erabilitako amortizazio koefiziente berberak erabili dira.

Kontabilitatean jaso dagoen ibilgetu material bakarra eraikinak dira eta 2016an jaso zen balioa arrazoizko prezioaren irizpidea erabilita. Hori dela eta ez da amortizatu.

2 Lurzoruaren ondare publikoa:

Ez dagokio.

3 Higiezinetakako inbertsioak:

Ez dago

4 Ibilgetu ukiezina:

Ez dago

5 Errentamendua:

Ez dago

6 Trukeak:

Ez dagokio

7 Aktibo eta pasibo finantzarioak:

7.1 Aktibo finantzarioen sailkapenean bereizten dira, batetik, kobratzeko kreditu eta partidak daude soilik.

Kobratzeko kreditu eta partidetan honako hauek sartzen dira: epekako ezarpenak, langileentzako kredituak, eta eratutako fidantzak eta gordailuak.

Epekako ezarpenak entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.

Langileei emandako kredituek ez dute kontratuzko interes tasarik, eta balio nominalaren arabera baloratzen dira.

Eratutako fidantzak eta gordailuak entregatutako balioaren arabera baloratzen dira beti, eguneratu gabe.

7.2 Pasibo finantzarioak: Entitateko pasibo finantzario guztiak kostu amortizatuko pasibo finantzario moduan sailkatu dira.

Epe motzeko zorren artean Udalak emandako 200,000 euroko zorra agertzen da.

8 Kontabilitate estaldurak:

Entitateak ez du kontabilitate estaldurei buruzko kontraturik formalizatuta.

9 Izakinak:

Entitatea ez da jarduten izakin moduan tratatu daitezkeen ondasunekin.

10 Beste entitate batzuetarako eraikitako edo eskuratutako aktiboak:

Entitateak ez du eraiki edo eskuratu beste entitate batzuetarako aktiborik.

11 Atzerri monetan egindako transakzioak:

Entitateak ez du transakziorik egin euroa ez den moneta batean.

12 Sarrerak eta gastuak:

Sarrerak eta gastuak batzuen eta besteen sortzapen dataren arabera egozten dira ekitaldira.

13 Hornidurak eta kontingentziak:

Hornidurak, pasibo baten zenbatekoari edo mugaegunari buruz ziurgabetasunen bat dagoenean onartzen dira. Gainera, beharrezkoa da baldintza hauek betetzea:

- Entitateak oraingo obligazio bat izatea lehenagoko gertaera baten ondorioz.
- Litekeena izatea baliabideak alde batera uztea (alegia, gertaera bat izateko aukera handiagoa izatea etorkizunean ez izateko aukera baino), eta
- Obligazioaren zenbatekoaren zenbatespen fidagarri bat egin ahal izatea.

Pasibo kontingentea da:

-Etorkizuneko zalantzazko gertaera baten edo gehiagoren balizko obligazio bat, lehenaldiko gertaeren ondorioz sortua eta benetan badela egiaztatu behar dena; edo, bestela,

-Orainaldiko obligazio bat, ordaindu behar izateko probabilitaterik ez izateagatik kontabilitatean onartuta ez dagoena edo, bestela, fidagarritasun nahikoarekin baloratu ezin dena.

14 Transferentziak eta diru laguntzak:

Transferentziak eta diru laguntzak arruntak eta kapitalekoak izan daitezke, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitate esparruari buruzko abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretuan jasotako irizpideei jarraituz.

Jasotako diru laguntzak eta transferentziak sarrera moduan onartzen dira, eta ondarearen emaitza ekonomikora egozten dira.

Bereziki, aktiboak eskuratzeko diru laguntzak direnean, ekitaldi bakoitzeko emaitzara egozten dira eskuratutako ondasunaren bizitza baliagarriaren proportzioan.

Onartutako transferentziak eta diru laguntzak, arruntak izan edo kapitalekoak izan, gastu moduan kontabilizatzen dira, eta ondarearen emaitza ekonomikora egozten dira haiek jasotzeko jarritako baldintzak bete direla egiaztatzen denean.

15 Baterako jarduerak:

Ekitaldi honetan ez da baterako jarduerarik egin Toki Administrazioa egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritakoari jarraituz.

16 Salgai dauden aktiboak:

Entitateak ez du izan aktibo salgarririk ekitaldiaren amaieran.

5. Ibilgetu materiala.

1. Ibilgetu materiala osatzen duten eta kostu ereduaren arabera baloratu diren balantzeko partiden mugimenduak honako hauek izan dira:

Balantzeko partida	Azalpena	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Ekitaldiko amortizazioa	Amaierako saldoa
211	Eraikuntzak	1.545.130,00	0,00	0,00	0,00	1.545.130,00
Guztira		1.545.130,00	0,00	0,00	0,00	1.545.130,00

2. Ibilgetu materialarekin lotutako bestelako informazioa:

Erabilitako amortizazio koefizienteak:

Eraikinaren balioa arrazoizko balioarekin irizpidearekin finkatu zen 2016 hasieran eta arrazoi horregatik ez da amortizatu higiezinaren balioa.

6. Lurzoruaren ondare publikoa.

Ez dagokio.

7. Higiezinetak inbertsioak.

Ez dago.

8. Ibilgetu ukiezina.

Ez dago.

9. Errentamendu finantzarioak eta antzeko eragiketak.

Ez dago.

10. Aktibo finantzarioak.

Aktibo finantzarioak jakinarazten dira, salbu honako hauek: ohiko jardueratik eratorritako eragiketei lotutako kredituak (balantzeko aktiboaren A.VII eta B.III epigrafeak), eskudirua eta antzeko beste aktibo likido batzuk, eta estaldura tresna izendatutako deribatutak.

1. Balantzeari buruzko informazioa.

a) Balantzeko aktibo finantzarioen sailkapena eta haiek Kontabilitate Publikoko Planeko onarpen eta balorazioari buruzko 8. arauan ("Aktibo finantzarioak") dituzten kategoriak kontziliatu ondorengo laburpenaren egoera orria.

Ez dago horrelako aktiborik

b Birsailkapena.

Ekitaldiaren barruan aktibo finantzarioen kategorien artean ez da egin kostu amortizatuaren balorazioa arrazoizko baliora edo alderantziz aldatzea ekarri duen birsailkapenik.

c Bermean entregatutako aktibo finantzarioak.

Ez dago bermean entregatutako aktibo finantzarioerik.

d Balioaren narriaduragatiko zuzenketak.

Ez dago balio narriadura mugimendurik Aktibo finantzarioetan.

2. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuarekin lotutako informazioa.

a Entitatearen sarrera finantzario gehienak entitateak hainbat entitate finantzariotan egindako epe laburrerako ezarpenen ondorio dira.

b Ez dira erregistratu edo ez dira handiak interes efektiboko tasaren metodoa aplikatuta kalkulatu diren sarrera finantzarioak.

3. Kanbio tasaren eta interes tasaren arriskuei buruzko informazioa.

a Kanbio tasaren arriskua.

Ez dago kanbio tasaren arriskurik, eragiketa guztiak eurotan egiten baitira.

b Interes tasaren arriskua.

Ez dago Kostu amortizatuan baloratutako aktibo finantzarioerik.

4. Bestelako informazioa.

Ez dago funtsezko informazio gehiago aktibo finantzarioei buruz.

11. Pasibo finantzarioak.

Atal honetan pasibo finantzarioak jakinarazten dira, salbu honako hauek: ohiko eragiketak (balantzeko B.IV eta C.IV epigrafeak) eta estaldura tresnatzat hartutako deribatuak.

a.1 Zorren egoera eta mugimenduak.

Zor bakoitzaren kasuan, informazioa egoera orri hauetan erakusten da: 1 a) Kostu amortizatuko zorrak, eta 1 b) Arrazoizko balioko zorrak.

Era berean, balantzeko pasibo finantzarioen sailkapenaren eta onarpenari eta balorazioari buruzko 9. arauan ("Pasibo finantzarioak") ezarritako kategorien arteko kontziliazioaren laburpen egoera orria aurkezten da,

1 c) Kategorien araberako laburpena izeneko egoera orria izenekoa.

Ez dago a) eta b) ataletako zorrik.

Ondoren c) kategorien araberako laburpena:

Ez dago epe luzekorik, soilik epe laburrekoa jasotzen da.

c) KATEGORIEN ARABERAKO LABURPENA

MOTAK. KATEGORIAK	EPE LABURRERA						GUZTIRA	
	OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK		KREDITU ENTITATEEKIKO ZORRAK		BESTELAKO ZORRAK		2021	2020
	2021	2020	2021	2020	2021	2020		
KOSTU AMORTIZATUKO ZORRAK	0,00	0,00	240.000,00	240.000,00	0,00	0,00	240.000,00	240.000,00
ARRAZOIZKO BALIOKO ZORRAK								
GUZTIRA	0,00	0,00	240.000,00	240.000,00	0,00	0,00	240.000,00	240.000,00

Nabarmentzekoa da Udalarekin duen zorra 240.000 eurokoa, epe laburrera eskatutako mailegua. Urtero ematen da egoera hau, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza ikasturtea amaitu ondoren jasotzeak eragiten dituen altxortegi arazoei aurre egiteko. Fundazioak ez du interesik ordaintzen epe motzeko mailegu honengatik.

a.2 Kreditu lerroak

Entitateak ez du formalizatutako kreditu lerrorik.

a.3 Kanbio tasaren eta interes tasaren arriskuei buruzko informazioa.

a) Kanbio tasaren arriskua.

Ez dago euroaz besteko monetan izendatutako zorrik.

b) Interes tasaren arriskua.

Kostu amortizatuan baloratutako pasibo finantzarioak honela banatuta daude, interes finkoko pasiboetara eta interes aldakorreko pasiboetara dagokienez, termino absolutuetan eta portzentualetan:

INTERES TASA	INTERES TASA FINKON	INTERES TASA ALDAKORN	GUZTIRA
PASIBO FINANTZARIOEN MOTAK			
OBLIGAZIOAK ETA BESTELAKO BALORE NEGOZIAGARRIAK	0,00		0,00
KREDITU ENTITATEEKIKO ZORRAK		0,00	0,00
BESTELAKO ZORRAK	240.000,00	0,00	240.000,00
ZENBATEKOA, GUZTIRA	240.000,00	0,00	240.000,00
INTERES FINKO EDO ALDAKORREKO TASAN DAUDEN PASIBO FINANTZARIOEN %, KOPURU OSOAREN ALDEAN	100,00%	100,00%	100%

Udalarekin duen mailegua 240.000 eurokoa, epe laburrera eskatutakoarengatik ez du interesik ordaintzen.

a.4. Abalak eta emandako beste berme batzuk

Fundazioak ez du emandago abal edo beste bermerik.

a.5. Bestelako informazioa:

Ez dago.

12. Kontabilitate estaldurak.

Entitateak ez du egin onarpenari eta balorazioari buruzko 10. araua ("kontabilitate estaldurak") aplikagarri zaion eragiketarik.

13. Beste entitate batzuetarako eraikitako edo eskuratutako aktiboak, eta beste izakin batzuk

Entitateak ez du eraiki edo eskuratu beste entitate batzuetarako aktiborik.

14. Atzerriko moneta.

Ez dago atzerriko monetako aktiborik eta pasiborik.

15. Transferentziak, diru laguntzak eta beste sarrera eta gastu batzuk.

1. Jasotako transferentzia eta diru laguntza nabarmenenak:

Izena	Zenbatekoa
EUSKO JAURLARITZAKO DIRULAGUNTZAK	272.102,82
UDAL APORTAZIOA - GASTU ARRUNTA	291.000,00
UDAL APORTAZIOA - DIRULAGUNTZA	20.800,00

2. Emandako transferentzia eta diru laguntza nagusiak:

Entitate jasotzailea	Zenbatekoa
DIRULAGUNTZAK IKASLEAK	35.954,51
MUSIKA EKINTZAK	18.704,30

16. Hornidurak eta kontingentziak

1. Ez dago balantzean onartutako hornidurarik:

2. Hona hemen pasibo kontingenteak, salbu abalei lotutakoak eta emandako beste berme batzuk:

Ez dago

3. Hona hemen aktibo kontingenteak:

Ez dago

17. Ingurumenari buruzko informazioa.

Ez dagokio.

18. Salgai dauden aktiboak.

Entitateak ez du zenbateko handiko aktibo salgarririk.

19. Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren aurkezpena jardueren arabera.

Jarduera bakarra da.

20. Aurrekontuzkoak ez diren diruzaintzako eragiketak.

Aurrekontuzkoak ez diren diruzaintzako eragiketak taula hauetan jasota daude:

AURREKONTUZKOAK EZ DIREN DIRUZAINZAKO ERAGIKETAK

1 AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNEN EGOERA ORRIA

Ez dago.

2 AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNEN EGOERA ORRIA

KONTUA	KONTZEPTUA		SALDOA URTARRILARE N 1ean	HASIERAKO SALDOAREN ALDAKETAK	EKITALDIAN EGINDAKO ABONUAK	HARTZEKO DUNAK, GUZTIRA	EKITALDIA N EGINDAKO KARGUAK	ABENDUAREN 31n ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK
	DESKRIBAPENA							
475105	OGASUN PUBLIKOA, BESTELAKO KONTZEPTU FISKALENGATIKO HARTZEKODUN		7.376,43	0,00	26.231,22	33.482,73	26.106,30	7.501,35
KONTUA, GUZTIRA 475 Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik hartzekodun			7.376,43	0,00	26.231,22	33.482,73	26.106,30	7.501,35
4760	GIZARTE SEGURATNZA		4.619,88	0,00	52.096,03	57.114,55	52.494,67	4.221,24
4761	MUTUALIDADEAK		0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4762	ELKARKIDETZA		1.656,55	0,00	11.595,36	13.251,91	11.595,36	1.656,55
4769	BESTEAK		0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
KONTUA, GUZTIRA 476 Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak			6.276,43	0,00	63.691,39	70.366,46	64.090,03	5.877,79
5210	Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak		240.000,00	0,00	0,00	240.000,00	0,00	240.000,00
KONTUA, GUZTIRA 521 Diruzaintzako eragiketen ondoriozko zorrak			240.000,00	0,00	0,00	240.000,00	0,00	240.000,00
GUZTIRA			253.652,86	0,00	89.922,61	343.849,19	90.196,33	253.379,14

3 APLIKATZEKO DAUDEN PARTIDEN EGOERA ORRIA

a) APLIKATZEKO DAUDEN KOBRANTZAK

KONTUA	KONTZEPTUA		URTARRILAR EN 1ean APLIKATZEK O DAUDEN KOBRA NTZAK K	HASIERAK O SALDOARE N ALDAKETA K	EKITALDIAN EGINDAKO KOBRA NTZAK	APLIKATZEKO DAUDEN KOBRA NTZAK, GUZTIRA	EKITALDIAN APLIKATUTAK O KOBRA NTZAK	ABENDUAREN 31n APLIKATZEKO DAUDEN KOBRA NTZAK
	DESKRIBAPENA							
554900	APLIKATU GABEKO BESTELAKO SARRERA		0,00	0,00	1.071.645,71	1.071.645,71	1.071.645,71	0,00
KONTUA, GUZTIRA 554 Aplikatzeko dauden kobrantzak			0,00	0,00	1.071.645,71	1.071.645,71	1.071.645,71	0,00
GUZTIRA			0,00	0,00	1.071.645,71	1.071.645,71	1.071.645,71	0,00

b) APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK

KONTUA	KONTZEPTUA	URTARRILAREN 1ean APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK	HASIERAKO SALDOAREN ALDAKETAK	EKITALDIAN EGINDAKO ORDAINKETAK	APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK, GUZTIRA	EKITALDIAN APLIKATUTAKO ORDAINKETAK	ABENDUAREN 31n APLIKATZEKO DAUDEN ORDAINKETAK
	DESKRIBAPENA						
555003	ORDAINKETAK PERTSONALAREN NOMINA APLIKATZEKE	0,00	0,00	148.460,02	148.460,02	148.460,02	0,00
555099	APLIKATZEKO DAUDEN BESTE GASTU BATZUK	0,00	0,00	923.242,04	923.242,04	923.242,04	0,00
5554	NOMINA BAKOITZEKO HARTZEKODUNAK	0,00	0,00	191.720,74	191.720,74	191.720,74	0,00
KONTUA, GUZTIRA		0,00	0,00	1.221.617,72	1.221.617,72	1.221.617,72	0,00
GUZTIRA		0,00	0,00	1.221.617,72	1.221.617,72	1.221.617,72	0,00

21. Administrazio kontratuak. Esleipen prozedurak.

P. Musikalek duen kontratu garrantzitsuena Musika eskolak emateko zerbitzuaren eta honen kudeaketaren kontratua. Kontratu hau amaituta dago eta salatua izan da 2018an, baina lizitazioa burutzen den bitartean zerbitzua ematen jarraitu du orain arteko sozietateak. 2021ean ere ez da esleipen berria egin.

Gainontzeko informazioa udalaren kontratazio atalean jasoko da.

22. Gordailuan jasotako baloreak.

Ez daude.

23. Aurrekontu informazioa.

23.1. Urteko ekitaldia.

1. Gastuen aurrekontua.

a Kreditu aldaketak.

**URTEKO EKITALDIA
GASTUEN AURREKONTUA**

a) kreditu aldaketak

AURREKONTU APLIKAZIOA	DESKRIBAPENA	KREDITU GEHIGARRIAK	HITZARMEN ARAUBIDEA	KREDITU TRANSFERENTZIAK		KREDITU GERAKINEN TXERTAKETAK	KREDITU GAIKUNTZAK	BAJAK EZEZTA PENAGATIK	ALDAKETAK, GUZTIRA:
				POSITIBOAK	NEGATIBOAK				
148001.326032021	Diru-laguntza ikasleei	0,00	0,00	2.754,51	0,00	0,00	0,00	0,00	2.754,51
122101.326032021	Energia hornikuntza	0,00	0,00	0,00	2.754,51	0,00	0,00	0,00	-2.754,51
112001.326032021	Langileen ordainsariak	0,00	0,00	4.000,00	0,00	0,00	0,00	0,00	4.000,00
121501.326032021	KEELbulego ekiptoak	0,00	0,00	0,00	500,00	0,00	0,00	0,00	-500,00

122001.326.03.2021	bulego ekiptoaka	0,00	0,00	0,00	455,00	0,00	0,00	0,00	-455,00
122102.326.03.2021	Erregaiak	0,00	0,00	0,00	1.000,00	0,00	0,00	0,00	-1.000,00
122201.326.03.2021	telefonoa	0,00	0,00	0,00	1.245,00	0,00	0,00	0,00	-1.245,00
122603.326.03.2021	Hainbat informazio-kanpainen gastuak	0,00	0,00	0,00	300,00	0,00	0,00	0,00	-300,00
122606.326.03.2021	Jarduerak eta trukeak	0,00	0,00	0,00	500,00	0,00	0,00	0,00	-500,00
TOTAL		0,00	0,00	6.754,51	6.754,51	0,00	0,00	0,00	0,00

b Kreditu gerakinak.

URTEKO EKITALDIA

GASTUEN AURREKONTUA

AURREKONTU APLIKAZIOA	DESKRIBAPENA	GERAKIN KONPROMETITUAK			GERAKIN EZ-KONPROMETITUAK		
		TXERTAGARRIAK	EZ-TXERTAG.	GUZTIRA	TXERTAGARRIAK	EZ-TXERTAG.	GUZTIRA
	GUZTIRA 413	0,00	0,00	0,00	0,00	6.840,46	6.840,46

c Aurrekontuari aplikatu gabeko eragiketen hartzekodunak.

Ez dago.

2. Sarrerren aurrekontua.

a Kudeaketa prozesua.

URTEKO EKITALDIA

SARREREN AURREKONTUA

a.1) ESKUBIDE EZEZTATUAK

Ez dago.

a.2) ESKUBIDE BALIOGABETUAK

Ez dago.

a.3) BILKETA GARBIA

AURREKONTU APLIKAZIOA	DESKRIBAPENA	BILKETA GARBIA	SARREREN ITZULKETA	BILKETA GARBIA
2 310.11.326.03 2021	IKASLEEN MATRIKULA	228.584,10	0,00	228.584,10
2 399.01.326.03 2021	BESTE HAINBAT SARRERA	543,66	0,00	543,66
2 430.01.326.03 2021	UDAL APORTAZIOA - GASTU ARRUNTA	291.000,00	0,00	291.000,00
TOTAL		520.127,76	0,00	520.127,76

b Sarrerren itzulketak.

Ez dago.

c Sarrerako konpromisoak.

Ez dago.

23.2. Ekitaldi itxiak.

1 Gastuen aurrekontua. Aurrekontu itxietako obligazioak.

EKITALDI ITXIAK

GASTUEN AURREKONTUA

1. AURREKONTU ITXIETAKO OBLIGAZIOAK

AURREKONTU APLIKAZIOA	DESKRIBAPENA	URTARRILAREN 1ean ORDAINTZEKO DAUDEN OBLIGAZIOAK	HASIERAKO SALDOAREN ALDAKETAK ETA EZEZTAPENAK	OBLIGAZIOAK, GUZTIRA	PRES.	EGINDAKO ORDAINKETAK	ABENDUAREN 31n ORDAINTZEKO DAUDEN OBLIGAZIOAK
3 211.01.326.03 2020	KMK ERAIKINAK ETA BESTELAK	1.132,63	0,00	1.132,63	0,00	1.132,63	0,00
3 214.01.326.03 2020	KMK MUSIKA TRESNAK	550,00	0,00	550,00	0,00	550,00	0,00
3 221.02.326.03 2020	ERREGAIA	239,50	0,00	239,50	0,00	239,50	0,00
3 226.06.326.03 2020	JARDUERAK ETA TRUKEAK	1.951,49	0,00	1.951,49	0,00	1.951,49	0,00
3 227.04.326.03 2020	KEEL MUSIKA ESKOLAK	34.236,00	0,00	34.236,00	0,00	34.236,00	0,00
3 481.01.326.03 2020	KULTUR JARDUERAK	4.881,90	0,00	4.881,90	0,00	4.881,90	0,00
GUZTIRA		42.991,52	0,00	42.991,52	0,00	42.991,52	0,00

2 Kobratzeko dauden aurrekontu itxietako eskubideak.

SARREREN AURREKONTUA

2 KOBRATZEKO DAUDEN AURREKONTU ITXIETAKO ESKUBIDEAK.

a) KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK, GUZTIRA

AURREKONTU APLIKAZIOA	DESKRIBAPENA	URTARRILAREN 1ean KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK	HASIERAKO SALDOAREN ALDAKETAK	ESKUBIDE EZEZTATUAK	ESKUBIDE BALIOGABETUAK	ZERGA-BILKETA	ABENDUAREN 31n KOBRATZEKO DAUDEN ESKUBIDEAK
4 310.11.326.03 2020	IKASLEEN MATRIKULAK	16.351,78	0,00	0,00	0,00	14.899,16	1.452,62
4. 310.11.326.03 2019	IKASLEEN MATRIKULAK	1.330,21	0,00	0,00	0,00	0,00	1.330,21
4 310.11.326.03 2018	IKASLEEN MATRIKULAK	1.914,94	0,00	0,00	0,00	0,00	1.914,94
4 410.01.326.03 2020	IKASLEEN MATRIKULAK	275.319,00	0,00	0,00	0,00	275.319,00	0,00

4 430.02.326.03 2020	DIRULAGUNT ZA EUSKO JAURLARITZA	4.983,14	0,00	0,00	0,00	4.983,14	0,00
GUZTIRA		299.899,07	0,00	0,00	0,00	295.201,30	4.697,77

b) ESKUBIDE EZEZTATUAK

Ez daude

c) ESKUBIDE EZEZTATUAK

Ez daude

23.3. Ondorengo ekitaldiak.

1. Gastu konpromisoak ondorengo ekitaldietako aurrekontuen kargura.

Ez dago.

2. Sarrera konpromisoak ondorengo ekitaldietako aurrekontuen kargura.

Ez dago.

23.4. Gastu proiektuen exekuzioa.

Ez dago.

23.5 Finantzaketa lotuko gastuak.

Ez dago

23.6 Diruzaintzako gerakina.

DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA ORRIA

KONTUEN ZENBAKIA	OSAGIAK	2020	
57	1. (+) Funts likidoak		9.053,62
	2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak		318.083,70
430,433,437,438	- (+) urteko aurrekontukoak	313.385,93	
431,434,439	- (+) itxita dauden aurrekontuetakoak	4.697,77	
440,442,449,456,470 471, 472,548,550	- (+) aurrekontuz kanpoko eragiketetatik eratorritakoak....	0,00	
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak		305.487,50
400	- (+) indarrean dagoen aurrekontukoak	52.108,36	
401	- (+) itxita dauden aurrekontuetakoak.....	0,00	
165,166,180,185,410, 414,419,453,475, 476,477,502,515,516, 521,560,561	- (+) aurrekontuz kanpoko eragiketetatik eratorritakoak....	253.379,14	
	4. (+) Aplikatzeko dauden partidak		0,00
554,559	- (-) egindako kobrantzak, behin betiko aplikatzeko daudenak	0,00	

555, 5581, 5585	- (-) egindako ordainketak, behin betiko aplikatzeko daudenak...	0,00	
	I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1 + 2 - 3 +4)		21.649,82
4900,4901,4902,4903	II. Kobranta zalantzarriko saldoak		4.697,77
	III. Soberako finantzaketa lotua		0,00
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II - III)		16.952,05

24. Itxiera ondorengo gertaerak.

Ez da erregistratu zenbateko handia duen itxiera ondorengo gertaerarik.